

**2014KO UZTAILAREN 17AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hamazazpia.

**HILABETEA:** Uztaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamalau.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa.

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:**

- M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez
- Iñigo Arrese Artabe
- Leire Artola Ugalde
- Eva Diaz del Rio
- Encarna Arrieta Telleria
- Alfonso Segade Gonzalez
- Santiago Urdampilleta Dos Santos
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

**ETORRI GABEA:** Josi Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

Gai zerrendarekin hasi baino lehen Alkate jaunak adierazi du aldibereko itzulpena egiteko sistema jarri dela eta pleno hau izango dela lehenengo aldia martxan jartzen dena.

Aitor Aldasoro jaunak galdetu du ea sistema hori modu iraunkor baten jarri nahi den. Bere ustetan sistema honekin batez ere erdaraz egiten dutenen eskubideak bermatzen dira. Esaten du ez dagoela aurka, baina bai zalantzak sortzen dizkiola, erdaldunek euskaraz ikasi ordez, sistema honekin beti itzulpena erabiltzea joko dutelako. Agian Urola bailaran zentzua izatea balitekeela dio, baina ez hemen etxeoak izanda. Hau kontutan hartu beharko litzakeela dio eta baita ere honek izango duen kostua.

Alkate jaunak adierazi du momentuz ez duela inolako kosturik suposatzen, Ordiziko Udalak utzi duelako aldibereko itzulpena egiteko sistema. Alkate jauna, aukera honetaz baliatu da Ordiziko Udalari eskerrak emateko. Jarraian esan du, froga batzuk egin ondoren erabakiko dela tresna erosi edo ez. Bere esanetan euskara hutsean egin nahi duenak eskubidea du bakarrik euskaraz hitz egiteko, baina besteek ere eskubidea dute jakiteko zer esaten den. Normalizaziorako pauso handia dela dio.

Aitor Aldasoro jaunak bere adostasuna azaldu du normalizazioari buruz esandakoarekin, baina bere iritziz alde onak eta txarrak dituela dio eta oraindik ere ez dakiela dio modu iraunkor batean eta noizbehinka erabiliko den.

#### **1.- AURREKO AKTA.** 2014ko ekainaren 19ko aktaren onespena.

2014ko ekainaren 19ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu dira berarekiko zer esanik ez dagoelako.

#### **2.- ONDARRE, 29 AREAKO AA SS ALDAKETA.** Behin betiko onespena.

Alkatea jaunak (BILDU) hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Ondarre 29 Areako Arau Subsidiarioen aldaketa. Behin behineko onespena.**

#### **AURREKARIAK**

**2011-03-18\_***Aspe Eraikuntza Metalikoak S.L.-k Beasaingo Ondarre 29. Eremuko AA SS aldaketa dokumentua aurkeztu du.*

**2011-03-21\_***Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zegozkien Organoei, zegozkien dokumentazioa igorri zaie. Ingurumen organoari Erreferentzia-dokumentua igor zezala eskatu zaio.*

**2011-05-10** *Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta euskara departamentuaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren erantzuna jaso da, Arau Aldaketak Kultur Ondarearengan inongo eraginik sortzen ez duela adierazten delarik.*

**2011-05-12** *Eusko Jaurlaritzaren Kultura saileko Kultura ondarearen Zuzendaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren erantzuna jaso da, Arau Aldaketak Kultur Ondarean inongo eraginik sortzen ez duela adierazten delarik.*

**2011-06-02** *AA.SS.en aldaketaren IEEBaren nondik norakoak ezartzen dituen erreferentzia-dokumentua jaso da.*

**2011-05-06** *AA.SSen Aldaketa Puntualeren Aurrerakin txostena aurkeztu da bere IEEBarekin.*

**2011-09-14** *Arkitekto aholkulariaren txosten teknikoa.*

**2011-09-19** *AA.SSen aldaketarako hirigintza batzordearen proposamena.*

**2011-10-06** *AA.SSen Aldaketaren Aurrerakin Dokumenturaen baldintzapeko onarpena.*

**2011-10-07** *Hasierako Txostena eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintza, ebaluazio eta Kontrol Zuzendarizari.*

**2011-11-24** *AA.SSen Aldaketaren Ingurumen-inpaktuaren Hasierako txostena jaso da.*

**2012-03-15** *Arau Subsidiarioen Aldaketa agiriaren haserako onespena, baldintzatu.*

**2012-04-19** *Bide azpiegitura sailaren aldeko txostenaren sarrera.*

**2012-06-07** *Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onespenari aurkezturiko alegazioak ebazten ditu eta batzuk osoki edo zatika aintzat hartzen ditu, ondorioz haserako onespen berri bat eta jendaurreko epe berri bat agintzen dituelarik.*

**2013-06-20** *Ondarre, 29 areako AASS aldaketari buruzko dokumentua aurkeztu da. Dokumentu honek 2012ko martxoaren 15eko plenoko erabakian jasotako baldintzak nahiz hasierako onespenari aurkeztutako alegazioen ebazpena jasotzen da.*

**2013-09-23** *Berriro ere 2013-07-09an teknikoak emandako txostenaren arabeko zuzendutako dokumentua aurkezten da.*

**2013-09-26** *Udalbatza Osoak erabaki zuen, 2012ko ekainaren 7ko hasierako onespen erabakiaren baldintzak jasotzen dituen 29 areako Arau Subsidiarioen aldaketa-dokumentua jendaurrean jartzea.*

**2014-01-20** *Aholkularitza Batzordearen txostena.*

**2014-01-23** *Plenoko erabakia, alegazioak ebatziz eta dokumentuari behin-behineko onespena emanez.*

**2014-01-29** *Ingurugiro inpaktuari buruzko txostenaren eskaera.*

**2014-02-07** *Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari txostena emateko eskaera.*

**2014-02-20** *Ingurumen Administrazioaren zuzendaritzak egindako errekerimendua dokumentazioa osatzeko.*

**2014-02-25** *Afektatutako organismoen kontsulta egitea.*

**2014-02-26** *Ingurumen Administrazioaren zuzendaritzari jakinarazpena.*

**2014-04-01** *Ingurumen Administrazioaren zuzendaritzaren jakinarazpena, espedientearen artxiboa erabakitzeari buruzkoa.*

**2014-04-14** *Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak emandako aldeko txostena.*

**2014-05-05** *Ingurumen Administrazioaren zuzendaritzari berak errekeritutako moduan, osatutako dokumentazioa igortzea.*

**2014-05-20** *Ingurumen Administrazioaren zuzendaritzaren jakinarazpena, bidalitako osatutako dokumentazioa espedientearen ez atxikitzeari buruz.*

**2014-05-22** *Ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostenaren eskera berria.*

**2014-06-17** *Ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena baldintzatuta.*

**2014-07-03** *Ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena betetzen dela justifikatzen duen eranskina.*

**14-07-2014** *Ingurugiro aitortzea. Ingurugiro-jarraipen neurriak*

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Ondarre, 29 areako AA SS aldaketari behin betiko onespena ematea. Ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena betetzen dela justifikatzen duen eranskina aldaketa hori osatzen du.

Behin betiko onespena, Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak (1) eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak (2) hurrenez hurren emandako txostenen arabera egiten da, hau da:

1.- Aldaketan jasotako handipena eta eraispena egitekotan, lehenago Administrazio Hidraulikoaren derrigorrezko baimena eskatu beharko da, URA-Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriko Arroen Bulegoan. Baldintza hau loteslea da.

2.- Ingurugiro aitoren dokumentuan jasotakoak (2014-07-14 erregistroko sarrera-data).

**Bigarren.** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari, erabaki honen kopia bat igortzeaz gain, espediente osoa behar bezala diligentziatuta ere bidaltzea paperean eta behin betiko onspena duen dokumentua informatikoki ere diligentziatuta bidaltzea.

**Hirugarren.** Ingurugiroko organoari, Ingurugiro inaktuari buruzko behin betiko txostenaren III ebazpen-atalean aurreikusten dokumentazioa igortzea.

**Laugarren.** Gipuzkoako Foru Aldundia ere dokumentua diligentziatuta bidaltzea, foru erregistroan gordetzeko.

**Bosgarren.** Behin betiko onspenaren erabakia probintzian gehien zirkulatu duen egunkarian argitaratzea eta onartutako xehetasunekin batera Gipuzkoako Foru Aldundian ere argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

### **3.- GUGARRETA, 23 AREAKO C LURSAILAREKIKO HIRI ANTOLAKETA EGITASMO BEREZIA:**

- Alegazioen ebazpena.
- Behin betiko onspena.

Alkate jaunak (BILDU) hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Gudugarreta, 23 HA, Eremuaren Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziaren hasierako onspenari aurreikutzako alegazioen ebazpena eta behin betiko onspena.**

#### **AURREKARIAK**

I.- 2014ko apirilaren 29an lehenengo alkateordeak hasierako onspena baldintzatuta eman zion C lursailarekiko Gudugarreta, 23 areari buruzko Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziari. Egitasmo Berezia jendaurrean jarri zen 2014ko apirilaren 30ean eta maiatzaren 2 eta 5ean, hurrenez hurren Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz eta eremuko jabeei banakako jakinarazpenak egin zitzaizkien.

Hogei laneguneko epean, CONSTRUCCIONES MECÁNICAS SEMPERE, S.L. (2014-05-16 sarrera data), ANTONIO BERBEL PEREZ eta MARTIN AIZPURUA ARAMBURU (azken hau Miguel Aizpurua Ayerbe jaunaren ordean) (2014-05-23 sarrera data) alegazioak aurkeztu zituzten.

*II.- 2014ko ekainaren 10ean, udal arkitektoak ondorengo txostena eman du:*

**ALEGAZIOAREN EDUKIA ETA BALORAZIOA.**

**1. Alegazio idatzia, Jose Antonio Ventureira Barrio jaunak aurkeztua.**

**1.1- Edukia:**

*Alegazio idatzia zera adieraztera dator, laburki:*

- *Aidanez, aurkeztutako idatziak aditzera ematen duenaren arabera, alegatzaileak orain onartu berri den Plan Bereziaren bidez xehatuki antolatutako denaren ondoko lursail industrialak okupatzen du.*
- *Alegatzaileak “zorduntza pasabidean kokatzen den Transformazio Zentroaren” jabe dela adierazten du, eta beronen eraisketak bere pabiloiaren estalkiari eragingo diola ohartarazten du, “aipatu zentroari lotua dagoena”. Sortutako gastuak Plan Bereziaren sustatzailearen gain ezartzea galdegiten du.*
- *Pasabide zorduntza mantentzea eskatzen du, bere mehelin altxaeraren mantentzerako.*
- *Aztergai dugun auziarekin zerikusirik ez duten beste hainbat adierazpen egiten ditu.*

**1.2- Balorazioa:**

*Lehenik eta behin, adierazi behar dugu indarrean den planeamenduak “zerbitzu azpiegitura” erabilerako lursaila, azalera txikikoa, izendatzen duela alegatzailearen lursailaren atzealdean, hain zuzen, aipatu Transformazio Zentroa jasotzeko.*

*Bai T.Z., baita hura hartzen duen lursaila ere, izaera orokorreko azpiegiturak dira eta beraz, jabetza publikoa dute, ez pribatua alegazio idatziak adierazten duen bezala. Are gehiago, aipatzen den pasabide zorduntza aipatu azpiegitura orokor eta publikoaren irispideari dagokio hain zuzen ere.*

*Hala ere, Transformazio Zentroa ez zen inoiz eraiki planeamenduak aurreikusitako lekuan, baizik eta orain onartutako Plan Bereziaren gai den lursailean aurkitzen da, alegatzailearen mehelin altxaerari itsatsia. Gainera, egun T.Z. erabileratik at omen dago eta Plan Bereziaren sustatzaileak enpresa hornitzailearen baimena du hura eraisteko.*

*Hau da, alegatzailea ez da T.Z.ren jabea, ez dago bere jabetzako lurzoruan ere, eta bere pabiloia neurri batean besteren eraikinak erabiliaz edota haiengan oinarrituz eraiki bada, baimenarekin edo baimenik gabe, hori norbere kontura izango da. Egia da*

edonola egungo T.Z.ren eraisketa lanak ondoko pabiloia ahalik eta gutxien kaltetuz egin beharko direla.

Edozein kasutan, Plan Bereziak ez ditu indarrean dagoen planeamenduaren aurreikuspenak aldatzen “zerbitzu azpiegitura” erabilerako lursailari dagokionez, etorkizuneko balizko beharretarako erreserba bezala geratuko dena.

Beste horrenbeste esan daiteke alegatzaileak aipatutako ustezko pasabide zorduntzari buruz, ez dena bere horretan existitzen, orain desagertzen den Transformazio Zentrorako irispide bezala baizik. Aldiz, nabarmena dirudi mehelin altxaeraren mantentze eta kontserbazio egokian interes handiena duena Plan Bereziaren gai den C lursailaren jabea bera dela, hain zuzen ere.

Beraz, ez dirudi zaila bi jabeek zentzu horretan zenbait konpromiso bere gain hartzea, baina izaera zibileko legedian oinarrituta eta hirigintza planeamenduaren eskumenetik kanpo. Edonola, txosten juridikoaren esku uzten dugu arlo zehatz honen behin betiko ebazpena.

## **2. Alegazio idatzia, Antonio Berbel Perez eta Martin Aizpurua Aranburu jaunek aurkeztua.**

### 2.1- Edukia:

Alegazio idatzia zera adieraztera dator, laburki:

- Aidanez, eta adierazten dutenez, alegazioaren jartzaileak Beasaingo Plangintza-Arau Subsidiarioetako AU.43 Gudugarreta arean kokatzen den lurzorua jabe dira.
- Indarrean diren Arau Subsidiarioek AU.43 Gudugarreta arearen garapena aurreikusten dute, eta dentsitate txikiko bizitegi aprobetxamendu berrien eraikuntza.
- Aipatu area mugakide da AU.23 Gudugarreta II arearekiko, haserako onespina jaso duen Plan Bereziaren xede, eta zehatzago, aldaketa jasan duen lursailarekiko.
- Alegazioaren jartzaileek adierazten dute orain haserako onespina jaso duen antolaketa xehekatuak kaltea dakarkiola, industria eraikinaren lerrokadura berria bizitegi lurzorua mugaraino bertaraino iritsiko bailitzateke, eta ondorioz, dentsitate txikiko aprobetxamendu berriek aurkako eragina jasango lukete.
- AU.23 Gudugarreta II areako Hiri Antolaketarako Plan Berezia behin betiko ez onartua izatea eskatzen dute.

### 2.2- Balorazioa:

2.007 urtean onartu ziren eta egun Beasaingo udalerrian indarrean dirauten Arau Subsidiarioek AU.43 Gudugarreta area zedarritu zuten, Hiri Lurzoru bezala sailkatua eta bere osotasunean Garapen txikiko bizitegi zonak (4.B.) bezala orokorki izendatua.

Ondoren, 2010eko urtarrilaren 29an, Beasaingo Udalak Gudugarreta, Arriaran, Garin, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta auzoetako Hiri Antolaketarako Plan Berezia onartu zuen behin betiko, besteren artean, AU.43 Gudugarreta arearen antolaketa zehatua ezartzen zuena.

Area ez da garapen gehiagoren xede izan, hau da, azken lau urteetan ez da jarduera integratuaren Hiritartze Jarduera Programa (H.J.P.) ere aurkeztua izan. Egia bada ere antolaketa xehatuak (B.E.P.B.) ez duela horretarako eperik finkatzen, 2/2006 Legeak xedatzen duen bezala, ustez arearen jabe diren alegazioaren jartzaileen ekimen ezak AU.43 Gudugarreta arearen garapenak pizten duen benetako interesa argi erakusten digu.

AU.43 Gudugarreta areako bizitegi garapena AU.23 Gudugarreta II areako erabilera industrialen ondorengoa eta haiekiko eratorria dela nabarmentzera dator hori guztia, eta haiekin elkarbizi beharko duela edonola ere.

Onartu beharra daukagu, gure ustez, indarrean dagoen planeamendua ez dela oso egokia, bizitegi erabileren eta industria erabileren arteko elkarbizitza beti baita zaila. Harago, Gudugarretak bezain landa izaera nabarmena duen auzoarentzat aurreikusten den hirigintza garapena guztiz gehiegizkoa eta orekarik gabea da.

Edonola, horrek guztiak ez du zerikusirik onartu berri den Plan Bereziarekin eta handik eratortzen den antolaketa xehatuarekin. Antolaketa berriak eraikinaren lerrokadura bizitegi lursailaren eta arearen mugaraino lekualdatzen duela egia izanik, horrek aurreikusitako bizitegi erabilerekiko eragin kaltegarria dakarrenik hautemate benetan subjetoa da.

Izan ere, indarrean dagoen plangintzak bizitegi erabilerekiko gertuen dagoen lurzorua industria lursail ez eraikigarritarako gordetzen du, hau da, ziur aski materialeen pilaketarako eta berauen garraiketarako, horrek dakarren kutsadura arazo nabarmenarekin (hautsa, zaratak, eta abar).

Nabarmena da zeregin hauek bizitegi erabileretatik aldentzeak eta industria eraikuntzaren bidez babesteak onura besterik ez dakarkiela. Gainera, ez dugu ahaztu behar bi eraikuntzen artean 6 metroko kota aldaketa dagoela, eta beraz, industria eraikinaren presentzia nabarmen leuntzen dela.

Bestalde, indarrean dagoen planeamenduan ez dago eraikuntza industrial lursailaren mugarekin lerrokatzeko inolako oztoporik, Kode Zibilak beste lursailekiko argien eta bisten eskubidearen inguruan ezar ditzakeenaz harago, baina hori aztergai dugun Plan Bereziaren eskumen eta zereginetatik kanpo geratzen da.

Edonola, benetan bidegabekoa dirudi industria lursailaren jabego eskubidea mugatzea, aldaketaren beharra nahikotasunez argudiatu duena, legezko oztoporik ez dagoenean, hirugarren baten aitzakia subjetoaren arabera, honek gaur arte bere hirigintza betebeharrak garatzeko inolako interesik erakutsi ez duenean.

Azkenik, alegazioaren jartzaileek beti dute AU.43 Gudugarreta areako antolaketa, xehatua edota egiturazkoa, aldaketa sustatzeko aukera, eremuaren garapena beronen ezaugarri natural zein eraikietara zuzenago egokitu asmoz. Edo Beasaingo Udala bera izan zitekeen, bere eskumenen baitan, aipatu aldaketari ekin diezaiokeena, gure ustez, lurraldearen garapen orekatuagoa eta jasangarriagoa sustatzeko helburuz.



ONDORIOA.

Ondorio gisa, gure ustez, **bidezkoa da alegazioak ez aintzat hartzea**, eta AU.23 Gudugarreta II areako Hiri Antolaketarako Plan Bereziari behin behineko onespena ematea.

**III.-** 2014ko uztailaren 1ean, udal Idazkariak txostena eman du jarraitu beharreko izapideei buruz, Hiri Antolakuntza Egitasmo Berezia onartu eta indarrean sartzeko.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, Udalbatza Osoari (horretarako eskumena Toki Araubide Legearen 22,2c artikulua ematen dio eta nahikoa da erabakia hartzeko gehiengo soila) ondorengo erabaki proposamena egin dio:

**Lehenik.** Aurkeztutako alegazioak deuseztatzea, 2014ko ekainaren 10eko txosten teknikoaren arabera.

**Bigarren.** C lursailari buruz, Gudugarreta, 23 areako Hiri Antolaketa Egitasmo Bereziari behin betiko onespena ematea, hasierako onspeneko baldintzak mantenduz, hau da: Iberdrolako transformadorea kokatuta dagoen kaseta antolamendutik "kanpora egoeran" dagoela aitortzea eta Errepartzelazio Proiektua aldatu beharra izatea.

**Hirugarren.** Errepartzelazio Proiektuaren aldaketak, ondorengo erregistroko finketan du eragina:

- 11.582 finka, C lursaila. Deskribapena eta bide-zorrei dagokionean (transformazio zentrorra joateko pasabide-zorra kendu egingo litzateke).
- 11.587 finka, jabari eta erabilera publikoa duen gun e berdea eta kirol ekipamendua, iparraldeko poligonoan kokatuta dagoenari buruz: forma deskribatu eta azalera adierazi.
- 11.589 finka. Aurrerantzean, 40 metro karratuko titularitate publikoa duen zorua izango da.

**Laugarren.** Behin betiko onartzen denean, Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaliko da dagokion erregistroan gordetzeko (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89,3. artikulua). Gainera Egitasmo Berezia indarrean sartu dadin, behin betiko onspenaren erabakia probintzian gehien zirkulatzen duen egunkarian argitaratuko da eta erabaki hori Egitasmo Bereziaren ordenantzekin batera, lurralde historikoaren aldizkarian argitaratuko da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

**4.- KREDITU ALDAKETAK (gehigarriak) ETA IRAUNKORTASUN FINANTZARIOARI BURUZKO KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.**

Alkate jaunak (BILDU) proposamenaren berri eman du:

**“GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA**

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

<b>Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria</b>	<b>Kontzeptua / Concepto</b>	<b>Kredituak / Créditos</b>		
		<b>Egunoak Actuales</b>	<b>Aldaketak Modific.</b>	<b>Behin betikoak / Definitivos</b>
1.4000.623.451.10.0 1	<b>Usurbe antzokiko sonorizazioa/Sonorización Usurbe antzokia</b>	6.257,75	11.000,00	17.257,75
1.5000.601.511.10.0 3	<b>Naf. Etorbid.-Barrendain zolaketa/ Pavimentación Naf. Etorb – Barrendain</b>	160.000,00	442.871,38	602.871,38
1.5000.601.444.10.0 1.2013	<b>Azp. eta urb.: Bidegorri ardatz nagusia / Inf y urb: Eje principal bidegorri</b>	202.302,88	29.000,00	231.302,88
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>		368.560,63	482.871,38	851.432,01

**KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA**

<b>Sarrerren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos</b>	<b>Baliabidearen kontzeptua Concepto del recurso</b>	<b>Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajos en Gastos</b>
1.4000.625.451.10.01	Panel digital eta egonkorak / Paneles fijos y digitales	11.000,00

870.01	Kreditu gehig. Finantz. Gerakina/Remanente financ. Cdtos. Adic.	471.871,38
<b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS</b>		482.871,38

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guk hirigintza eta ogasun batzordeetan esanda bezala, aurka bozkatuko dugu. Barrendain plaza ez dago egoera onean. Gogoratu behar da horko zorua bi aldiz altxatu dela eta ez dela asmatu. Arazoak pentsatzen direnak baino larriagoak dira. Proiektuan, alde batetik Nafarroa Etorbidea egonkortzen da, autobusen geltokia handitzen da eta biribilgunea gutxitu. Dagoen egoera hobetzeko saiakera egiten da, baina aurka bozkatzeko arrazoi nagusia da horrek suposatzen duen gastua. Nafarroa Etorbidea gehiago oinaztatzen da eta horrek automobilak kentzea dakar eta horren ondorioa da, hortik pasatzeko aukera bakarrik hor bizi direnak izango dutela. Larria da biribilguneko esparruak 120.000 €ko kostua izatea, izan ere beste guztiak hobekuntzak dira, baina ez dakigu hobeto funtzionatuko duen. Gure ustez beste lehentasun batzuk ere badaude eta non inbertitu ere bai. Eskertzen dugu gurekin kontatu izana proiektua egiteko eta patxadaz ikusteko, baina guretzat esfortzua egin behar da biribilguneko zoru hori ondo geratu dadin. Aurreikusitako den kontu-saila ez da nahikoa izango ”

Une honetan Josi Insausti sartu da batzarraldira.

Alkate jaunak (BILDU): “Proiektua onartuta dago. Batzordean, PSE-EE/PSOE, PP, ARALARek eta guk onartu genuen. Garbi dago, Barrendaineko zorua konpondu beharra dagoela eta nahiz eta bi aldiz altxatu eta konpondu, ez dela asmatu. Oraingo honetan asfalto inpresoa jarriko da. Galtzadarria ez. Biribilgunea murriztu egiten da, baina segurtasuna mantentzen da eta proiektuan aurreikusita dauden obrak egokiak direla pentsatzen dugu. Badakit beste nonbaiten ere inbertitu daitekeela, adibidez, Olanan.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Guretzat Olanan proiektu estrategikoa da. Garbi izan behar duguna da zer egin toki horretan. Guk beste lehentasun batzuk ikusten ditugu.

Kreditu aldaketa honen ondorioz, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastu muga urratu egiten dira, nahiz eta egoera ekonomiko orokorrean eraginik ez izan”

Alkate jaunak (BILDU): “Puntu honetan ere, kontuhartzailearen txostenaren berri ematen da iraunkortasun finantzarioari buruz eta bertan azaltzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren egoera finantzarioa iraunkorra dela eta kreditu aldaketen ondorioz ez dela konpromituta geratzen.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (BILDU, PSE-EE/PSOE, PP, ARALAR)  
Aurkakoak: 7 (EAJ, H1)  
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

#### **4.- KONTU OROKORRA.** 2013. ekitaldi ekonomikoaren Kontu Orokorra.

Alkateak (BILDU) gaia azaldu du: "Kontuetarako Batzorde Bereziak 2014ko ekainaren 19an egindako bileran 2.013 ekitaldiari dagozkion kontuak onartu zituen eta 15 eguneko epean jendaurrean egon ondoren ez da alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Beraz, 2.013 ekitaldiari buruzko kontuak Udalbatzaren onespenerako aurkeztu behar dira, atal aipagarrienak ondorengoak izanik:

#### UDALA

- HASIERAKO AURREKONTUA: 13.849.463,80
- BEHIN-BETIKO AURREKONTUA: 16.440.719,09

#### AURREKONTUAREN GAUZATZE MAILA:

GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA : % 86,37

INBERTSIOAK: Inbertsioen % 58,29a gauzatu da. Baina, hala ere, baimendutako gastua, hau da, lanen esleipenerako prozedura hastearen ondorioz konprometitutako kredituak % 78,43koak izan dira.

SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA : % 95,63

DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA: 6.782.270,10 euro

#### ONDAREA ETA AZPIEGITURAK

Ondare eta Azpiegituren gehikuntzari dagokionean, 2013. urtean aipagarrienak ondorengoak dira:

#### Azpiegiturak

- 8. Sektoreko lursailak enkante bidez eskuratzea.

### Eraikin eta eraikuntzak

- Igartza Oleta, 12D lokala erostea.
- Zazpiburrieta 4ko lokala erostea.

### Bestelako instalazioak:

- Ezkiagako komun publikoa.

## ZORPETZEA

2013ko ekitaldiaren amaieran Udalak finantza erakundeekin zuen pasiboa 5.290.441,28 eurokoa zen, eta eragiketa horien ondoriozko zorpetze maila %3,57koa.

### BEASAIN LANTZEN, S.A.

Saldu gabe jarraitzen dute 6. Sektoreko 2 pabiloiak, Osasun Zentroko 4 garaje eta Olaran inguruan egindako Babes Ofizialeko etxeko lokalak.

Ekitaldia 625.230,30 euroko galerekin likidatu da.

Bozketa eginda, aho batez behin-betiko onartu da 2013ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra.

**5.- EUSKALTEGIKO ESTATUTUEN ALDAKETA.** Behin betiko onespena.

Une honetan, Santiago Urdampilleta atera da batzarralditik.

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

*“2014ko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkurak **“Eskalategiaren Estatutuen aldaketari”** hasierako onespena eman zion eta jendaurrean jarri zen 2014ko urtarrilaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta hogeita hamar eguneko epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.*

*Ofizioz, ordea, bi akats hauek detektatu dira:*

*1.- 23. artikuluan, d) puntua, hau da, eskubide, tasak eta kuotak onartzea kendu egin behar da, legearen arabera ez delako behar horiek onartzeko gehiengo absolutua.*

*2.- 1987ko uztailaren 17ko GAOean argitaratutako 27. artikulua desagertu egin behar da, bere garaian ere Estatutuak onartu zirenean horrela erabaki zelako, baina estatutoak argitaratzerakoan ez zen kendu.*

*Horren ondorioz, 2014ko ekainaren 5an egindako Euskaltegi Fundazio bileran erabaki zena da, 2014ko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako baldintzak berrestea eta 23.d artikuluan aurreikusitakoa eta 27. artikulua kentzea onestea eta estatutuei horiek kontutan izanda behin betiko onespena ematea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

**6.- GOIEKI.** GOIEKIk Administrazio Kontseiluan ordezkaria izendatzea, ahotsarekin baina botorik gabe.

Une honetan, berriro sartu da batzarraldira Santiago Urdampilleta.

Alkate jaunak proposamenaren berri eman du:

*“GARBIÑE ZURUTUZA FERNÁNDEZ (ARALAR) andrea GOIEKIk Administrazio Kontseiluan, Beasaingo Udalaren ordezkaria izendatzea, ahotsarekin baina botorik gabe.”*

Alkatea jaunak (BILDU): “Gure nahia da GOIEKIn talde politiko guztiak ordezkatuta egotea. Ezinezkoa da dena da, ordezkari guztiak ahotsa eta botoa izatea, baina aukera dagoenez ahotsarekin baina botorik gabe izendatzea, horregatik ekartzen dugu batzarraldira proposamen hau.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Legealdi hasieran guk proposatu genuen gure buruari uko egin da, baina orduan ezer ez zen egin. Orain legealdia amaitzeko gutxi falta denean proposatzen da. Pena da, hiru urte galdu direlako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

**7.- ALKATEAREN EBAZPENAK.** 2014ko ekainaren 16tik uztailaren 12a bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2014ko ekainaren 16tik uztailaren 12a bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

## **8.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **EUS DOMINIOA**

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Irailaren 18an, beasain.eus dominioa eskatzeko aukera zabalduko da eta eskatzen duguna da zentzu honetan pausoak ematea, martxan jartzeko eta merkatariak eta enpresak animatu erabili dezaten, euskara sustatu ahal izateko.

Alkate jaunak (BILDU): “Horretan gaude. Informatzen ari gara, zeren eta ez dakiguna da egun daukagun web orria horrekin bat etorri daitekeen.

## BISTA ALAI

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Gai honen inguruan, HITZAn azaldu da bide penalarekin ez duzuela jarraituko. Pentsatzen dut ordea, tematiak izaten jarraitu eta bide administratiboarekin jarraitu nahiko duzuela eta horrela bada, bizilagunengan eragina izan dezake. Espediente zigortzaileari hasiera emateko zuek Iñigo Iruin abokatu bulegoari enkargatutako eta Luis Barrinagaerrementeria abokatuak sinatutako txosten juridikoaren 55. orrialdean horrela dio: “El resultado práctico que así se obtendría consiste en que las actuaciones materiales realizadas no se verían afectadas pero, en virtud de las estipulaciones tercera 1.3 y 2.4 del convenio, son los propietarios de las parcelas quienes vienen obligados a aportar “la monetarización respecto del 10% del aprovechamiento lucrativo del ámbito, de obligada cesión gratuita a la Administración actuante”, porcentaje que no era de 466.000 euros sino de 696.243,56 euros...Por consiguiente, aquellos propietarios deberán abonar al Ayuntamiento la diferencia más el interés legal del dinero.” Honekin guztiarekin, dirua gastatzen da. Orain arte emandako txostenak 18.000 € kostua izan du eta espedientearekin jarraitu ezker txosten gehiago izango dira eta beasaindar guztion artean ordaindu beharko dugu. Norbaitek honetaz ere erantzun beharko du. Beraz, eskatzen duguna da, bizilagunengatik eta diruagatik, bide administratiboa bere horretan uztea.”

Aitor Larburu Izagirre jaunak (BILDU): “Tematuta zu zaude. Zuk saldu nahi duzuna da, Gobernu hau bizilagunen aurka dagoela. Ulertzeko zertaz ari garen eta orain gertatzen ari dena, kontatuko dut nola izan den prozesua. Esan, gai honen inguruan tramitatu zen espedientea eta guk enkargatutako txostena fiskaltzara bidali zela eta aste honetan fiskaltzak espedientea artxibatu egin duela.

Bere garaian, herritar batek obra-baimen bat eskatu zuen. Arkitektoak, txostena eman ahal izateko espedientea aztertu zuen eta ohartarazi zigun hainbat xehetasun ondo ez zeudela. 3.1 egikaritze unitateari zegokion aprobetxamendu urbanistikoagatik, arkitektoak 2007ko abuztuaren 17an emandako txostenaren arabera kobratu beharrekoa ez zuen kobratu. Nahiz eta horren aurka Idazkariak aldekoak ez diren bi txosten egin, aurrera jarraitu zen eta onartutako dokumentuetan aurreikusi zen diru gutxiago kobratzea, justifikaziorik gabe. Dokumentazio guztia begiratu genuen, aktak barne eta iritsi ginen konklusioa izan zen Alkateak nahiz hirigintza batzordeko Lehendakariak ez zutela ondo jokatu. Beste talde politikoei ezkutatu egin zitzaizkien Idazkariaren aurkako txostenak eta horren ondorioz 466.000 euro kobratu zituen, 696.243,56 euro kobratu orde. Gai honen inguruan, hirigintza batzorde monografikoa egin zen. Batzorde horretara, gure sorpresarako, aurreko legealdian zegoen Arkitektoa azaldu zen eta lehengo Alkateak pelota pasa zion.

Arkitektoak gertatutakoa defendatu zuen, adieraziz bere garaian egindako txostena ez zegoela ondo eta kobratutakoa zuzena zela, nahiz eta berak momentu horretan aipatzen zuen kopurua 466.000 € ez izan. ¡Paper ona jokatzea tokatu zitzaion!. Ikusita monografiko horretan ez zirela gauzak argitu, guk txosten juridiko bat eskatu genuen eta txosten horretan esandako ekintzarekiko, delitu penalak eta delitu administratiboak daudenaren aipamena egiten du. Espediente zigortzailea ireki zen eta horren ondorioz alegazioak aurkezteko aukera eman zen, baina ikusita aurkeztutako alegazioak ez zutela justifikatzen gertatutakoa, espediente fiskaltzara bidali zen delitu penala egon ezker aurrera jarraitzeko. Gure desioa ez da inor pikotan jartzea. Fiskaltzak Toledo arkitektoari deitu zion argibideak emateko eta honek bi aukera zituen: bere garaian emandako txostena berretsi edota lehen aipatutako batzorde monografikoan esandakoa baieztatu. Azken hau egin zuen, aurreko legealdiko politikoei babesa emanez. Fiskaltzak ez du epaitzen, bakarrik esaten du deliturik dagoen ala ez.

Zuek espedientearekin ez jarraitzea eskatzen duzue, baina garbi dago Beasaingo herria dela galera jasan duena eta zuek ez duzuela inolaz ere justifikatu. Oso erraza da esatea, Patxi Plazaolaren aldetik papertxo bat falta dela. Espedientearekin jarraituko dugu, zeren eta hau norbaitek konpondu behar du, baina bizilagunei esan nahi diegu lasai egoteko. “

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ez ditut bide administratiboak eta penalak kontrolatzen baina, nor da orduan epaitzen gaituena?. Dena dela Idazkariari galdera bat egin nahi diot, berak prozesu guztiaren berri izan duelako. Leporatzen diguzuena da beste talde politikoen ezkutuan ibili garela. Idazkariaren iritzia jakin nahiko nuke gai honi buruz, alegia, ez zerbait ezkutatu dugun plenoetan, batzordeetan...Batez ere Bista Alai gaiaren inguruan. Nik uste dut zuk pisu handia duzula Udal honetan eta zure iritzia jakin nahiko nuke.”

Alkate jaunak (BILDU): “Zuk ikusi, Itziar, erantzun edo ez, zeren eta galdera konpromiso handikoa da. Alkate bezala esan nahi nizuke gure arteko gatazka dela.”

Idazkari andreak: “Egia esan, ni ez naiz akordatzeko zer gertatu zen eta batzordeetan guztia aipatu zen edo ez. Maiz gertatu izan da batzordeetan esaten den guztia ez dela aktetan jasotzen. Garbi dagoena da, 3. eremuko bi unitate egikaritzek batera tramitatu zirela eta batean txosten teknikoan adierazten zen kopurua errespetatu zela eta bestean, ordea ez, eta behin eta berriz aipatzen zena zen Bista Alaiko 3.1 unitatea egikaritzean zegoen arazo soziala kontuan izan zela.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Aktetan ez dela dena jasotzen?. Nik uste dut hori baino serioagoak garela. Begiratu aktak, Aitor eta esan zeinetan aipatzen diren emandako txostenak”



Alkate jaunak (BILDU): “Normala da diskusio denak ez jasotzea, baina txostena dagoen ala ez, iruditzen zaigu jasoko zela, are gehiago aurkakoa izanda. Guri behintzat hala gertatzen zaigu. Galdera hori egin genuen batzorde monografiko horretan. Aurkako txostena izanda, ez zen jasoko eta ezta ere beste taldeei informatu?”

Idazkari andreak: “gertatzen dena da, Kontzertazio hitzarmena aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, batzordeetan oraindik aprobetxamenduaren aipamena egiten jarraitu zela.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik galdetzen dudana da ea informazio hori ezkutatu zen edo ez.”

Malu Vallés andeak (EAJ): “En política todo no vale. Un procedimiento penal es una cosa seria. Habéis ido a Fiscalía, pero como el resultado no ha sido de vuestro gusto os limitáis a decir que la Fiscal únicamente ha llamado a testificar a TOLEDO. Lo cierto es que Fiscalía disponía de toda la documentación, constituida de tres tomos y en ellos no sólo consta el informe que en su día hizo el arquitecto para valorar el aprovechamiento, sino también el encargado por vosotros para dar inicio al expediente sancionador y para posteriormente remitir todas las actuaciones a Fiscalía. Ahora pretendéis continuar en vía administrativa porque no se os ha dado ningún dato que justifique la diferencia de cantidad que consta en el informe técnico y la finalmente aprobada y cobrada. Sin embargo, en el expediente hay un informe técnico y otro de Patxi de Assas, justificando que la cantidad recibida es la correcta. Al incoar el expediente sancionador, el Alcalde nombra instructor a Aitor Larburu. Vosotros hacéis y decidís. Al final, blanco y en botella.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Non zeuden txosten horiek, Patxi Plazaolaren bulegoan?”

Malu Vallés andreak (EAJ): “En el desarrollo de cualquier ámbito urbanístico como es el que nos ocupa, hay que hacer una valoración del aprovechamiento urbanístico a ceder al Ayuntamiento, pero esa valoración puede oscilar porque el precio del que se parte es el que cuesta la vivienda en ese momento y ese precio cambia. Lo que aquí ocurrió es que los promotores eran los propietarios de las antiguas viviendas y el cálculo se efectuó en base al precio de la vivienda de VPO. Os hemos explicado esto de mil maneras posibles, pero creo que tendremos que seguir insistiendo con este tema.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Yo lo que pido es que a la Secretaría se le deje en paz. Es la Secretaría municipal y no la de un partido político u otro. Los documentos e informes están en el expediente. No me parece apropiado que se mezcle a la Secretaria en esto. Es un debate político y pido un poco de respeto y que se deje a la Secretaria al margen de todo esto.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ya sé que no es la Secretaria de ningún partido político.....

Malu Vallés andreak (EAJ): “El problema está en que se ha pasado del hecho de la valoración del aprovechamiento a que se ha ocultado información. En definitiva, a una descalificación política.”

## KIROLDEGIKO LANGILEEN EGOERA

Publikoan dauden bi pertsonak hitza eskatu dute eta Alkate jaunak eman ondoren, kiroldegiko langileen ordezkari sindikalak bezala aurkeztu dira eta lehenik eta behin bai gobernu taldeari eta baita PSE-EE/PSOE taldeari eskerrak ematen dizkie, langileen eta MAS QUATRO enpresaren artean bitartekari lanak egiteagatik eta horren ordeztu delako deitutako greba burutzea. Jarraian esan dute ezin dela gauza berdina esan beste talde politikoei buruz.

Beraien aurka irainak eta gauza asko esan direla diote langileek, baina Udalak parte hartu ez balu ezertara ez zirela iritsiko adierazi dute.

Honela esaten jarraitzen dute: antes se ha dicho que en política todo no vale. Yo estoy de acuerdo con esa afirmación. En el Kiroldegi hay todo tipo de trabajadores como en cualquier otra empresa, pero desde luego, no nos englobamos en el colectivo de alperras.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Inor ez da etorri guregana azaltzea zer gertatzen zen. Kanean enteratu ginen eta egin duguna da teknikoengana jo jakiteko zein diren eman beharreko pausoak. Gaia Beasain Lantzeneko Administrazio Kontseiluan tratatu behar zen.”

Kiroldegiko langilea: “Ha habido una serie de cosas que no nos han gustado nada. No vamos a entrar en detalles. Ya hemos dicho lo que teníamos que decir. Si no hubiera sido por el Ayuntamiento, con la empresa no hubiéramos llegado a ningún acuerdo porque estábamos en punto muerto. Gracias a la intervención del Ayuntamiento hemos podido resolver el problema. Aquí hemos venido, sobre todo, para agradecer, a ellos y a otros. Este tipo de asuntos tienen efectos colaterales, pero lo que es claro es que con los derechos de los trabajadores no se juega.”

Beste langileak: “Dado que como partidos políticos tenéis la responsabilidad de representar a los ciudadanos, lo primero que tenéis que hacer es interesaros por vuestros trabajadores, aunque pertenezcamos a una empresa. Somos 32 trabajadores y hubo que paralizar todo, a pesar de que había voluntad política para seguir adelante.

Si necesitáis información, nosotros estamos dispuestos a dáosla, a vosotros y a cualquiera que lo solicite. Pero, temas políticos, políticos son.

Josi Insusti jaunak (H1): “No se quiere entrar en detalles pero, sin embargo, estáis diciendo cosas. No sé muy bien a qué os estáis refiriendo.”

Kiroldegiko langileak: “Cada uno que se quede con lo que quiera y que haga una lectura constructiva y positiva.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Para adoptar una postura proactiva, lo primero que hay que tener es la posibilidad de estar. El partido socialista podía haber aportado algo en la última reunión que se tuvo en Beasain Lantzen, pero se quedó el tema encima de la mesa, porque desde el punto de vista legal había puntos que no se veían. La propuesta que hizo el técnico de deportes la asumimos desde el principio. Nosotros en todo momento hemos querido que se aplicara el convenio que vosotros queráis, pero lo que jurídicamente no se veía claro es que a la empresa le diera lo mismo perder el 5%, el 20% o el 25%. En ese momento yo creo que el Alcalde, acertadamente, dijo que el tema se dejaba encima de la mesa y que se seguiría hablando. Es a lo único que hemos tenido acceso. Si me gustaría saber de qué se nos está acusando.”

Kiroldegiko langileak: “No se os está acusando, se os está pidiendo que actuéis de otra manera. Hemos dejado caer cosas porque no sabemos de donde vienen.”

Une honetan, Malu Vallés Andrea batzarralditik irteten da.

Alkateak esan du langileak ez direla Beasain Lantzenekoak, ezta ere Udalarenak, baina Udalaren bitartekari lanen ondorioz eta bilera batzuk egin ostean gaia konpondu dela, langileak enpresarekin adostasun batera iritsi direlako.

## GAZTEEN LOKALAK

Bizilagun batek galdetu du ea nola doan gazte lokalen inguruko araudia.

Zeilia Herrador andreak (BILDU); “Talde-lana martxan jarri ondoren, araudiaren zirriborroa prestatu da, baina oraindik gai tekniko batzuk erabakitzeko daude. Oporren bueltan berriro gaiari helduko diogu, baina denbora beharko da. Beste talde politikoekin hitz egin beharrean gaude eta onartuta ere, indarrean sartzeko prozesu bat jarraitzea derrigorrezkoa da. Eta ez hori bakarrik, ordenantza horretan aurreikusiko diren baldintzak betetzeko jendeari epe bat eman behar zaio. Hau guztia bileretan hitz egin da eta nik uste dut denok ulertu genuela.”

Bizilagunak dio, geroz eta okerrago doazela eta lehengo egunean koadrila bat zegoela bere etxe azpian, gora begira.

Zezenia Herrador andreak (BILDU) ihardetsi dio esanez, prozesua orokorrean tratatu behar dela, eta ez aipatu eta pentsatu bakarrik lokal zehatz batzuetan.

Bizilagunak gogoratu du salaketa jarri dutela bizilagunen sinadurekin, baina ez dutela erantzunik jaso.

Zezenia Herrador andrearen esanetan, araudia egitearekin, batzarraldira etorri diren bizilagunek ez dira konformatuko, beraien helburua lokala itxi araztea delako. Bukatzeko esan du, Udaltzaingoa jarraipena egiten ari dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.